# KANTAK

Egilea: IMANOL URBIETA

# KILOMETROAK 87



EUSKAL HERRI BAT
EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BAT



URRIAK 4
ZARAUTZ

KILOMETROAK 87

# KANTAK

IMANOL URBIETA

URRIAK 4
ZARAUTZ

*Ez herriarentzat,*
*herriarekin batera kantatu ohi dugu.*
*Herriak moldatu bai gaitu.*
*Elkartuz,*
*abestuz,*
*herri horren oihua nahi dugu indartu.*

*Haurtxo,*
*gaztetxo,*
*onhar ezazu*
*Belaunaldiz belaunaldi*
*arbasoengandik datorkigun arnasa.*

*1987. Urtarrila*
*Koralez koral*
*Oleskari.*

*partaideak:*
Zarauzko SALBATORE MITXELENA ikastolako haurrak.
OROKIETA Herri eskolako 3 eta 4 urteko haurrak.
XIRULA MIRULA Taldea, OLESKARIAK, Zarautzko TXISTULARIAK, Jaione Eskudero, Jose Antonio Urbieta, Koldo Carbonel, Fernando Ederra, Ander Letamendia, Manolo Urbieta eta Jesus M. Txapartegi.

*grabaketaren arduraduna:*
Kontxi Aizarna

*inprimaketa:*
ITXAROPENA, S.A.
Araba kalea, 45 - Zarautz - Industrialdea
Legezko gordailua: S.S. 527-87
I.S.B.N.: 84-7086-186-7

## AURKIBIDEA

1. Oihu bat entzun da ........ 6
2. Herriko musika plazan ........ 8
3. Kokox, kakax eta kirriki ........ 10
4. Herriko jatorrak ........ 12
5. Julianen urbanoa ........ 14
6. Ziriketan ........ 16
7. Biri biri txakurra ........ 18
8. Dinbi danba ........ 20
9. Enbata ........ 22
10. Ene Zarautz maite ........ 24
11. Gora Euskara ........ 26
12. Txioka ........ 28
13. Gau argitan ........ 30
14. Karraxika ........ 32
15. Gurea duk hau ........ 34
16. Ai, ai fandango! ........ 36
17. Trikitilariak ........ 38






# Oihu bat entzun da

*Musika eta Bertsoak: M. URBIETA.*




Oihu bat entzun da
GORA EUSKARA!
Bidean jarri gara.
Tipi-tipi-tap!
ibil-ibilian
ikurriñak aidean.
Oihu bat entzun da
GORA EUSKARA!
Bidean jarri gara.

Tipi-tipi-tap!
ibil-ibilian
EUSKARAZ EUSKALERRIAN.

Euskara, oi Euskara!
jalgi hadi plazara!
Gaurdanik eta betiko
EUSKARAZ ETA KITTO!






# Herriko musika plazan




Herriko Musika plazan
jo nahi nuke txirula.
Lai, lai Txirula.

Herriko Musika plazan,
jo nahi nuke Bioliñe,
ñe-ñe! bioliñe.

Ai, ene, ai ama.
Zatoz gurekin plazara!

Herriko Musika plazan
jo nahi nuke pianoa
tintantan pianoa

Herriko Musika plazan
jo nahi nuke turuta
Tatari! Turuta.

Herriko Musika plazan
jo nahi nuke gitarra
ran-ran gitarra.

Herriko Musika plazan
jo nahi nuke tronboia
pra-pra! tronboia.

Herriko Musika plazan
jo nahi nuke danborra,
dan-dan-dan! danborra!

Herriko Musika plazan
jo nahi nuke txindata
Txinda-txin! Txindata





# Kokox, kakax eta kirriki




Kokox, Kakax eta Kirriki
kaka, kika, koka, kuka
Kukurruku, kikiriki
Kokox, Kakax eta Kirriki
Hiru pailazoak gurekin.

Hemen dago Kokox,
eta hor dago Kakax,
han dago beste laguna
Kirriki pailazoa.
Bai, bai.
Ez, ez.
Bai, bai.
Ez, ez.
Bai, bai.
Ez, ez.




Tautalak binan binan
eskuak patrikan,
txatoak, besamotxak,
kojuak korrikan.
Altxola, Golindo,
Xoaxola, Pantolingo
Beltxor eta Garro,
Fafai, Kallebarro.

Txiliku, Kaskatxuri,
Trumoia, Tximista,
Kukulu, Juli-juli.
Bibo eta Erreusta,
Katxina, Ziotza,
Pikatza eta Makatza.
Kiriki, Pikante,
Tanton eta Tente.

Iñurritzan Ispilla,
Sanpardon Kirkilla,
Oilua eta Sagua,
Lagarto, Mustua.
Arrantzan Muxarra,
Txofertzan Jose Mantso,
Pelotan Zaporra,
Musikan Barrentzo.

Etxebeltz eta Antonbeltz,
Zalbide, Zaldubi,
Paskuelita, Paskueltxo,
Pipas, Astazubi.
Amoña, Okontxo,
Amaskar eta Etxetxo
Kornelio, Asentxio,
Salbardin, Primotxo.



# Herriko jatorrak

Musika eta Bertsoak: M. URBIETA.




Pipekale, Santana
Xiano, Meana.
Txabillo eta Txandarra.
Kapasko, Karrama.
Baserri, Saberri.
Kintxe eta Lanberri.
Ai, ene, Alleme,
Aupa Patxiseme!

Belatxe eta Silban,
Legazpi, Elias,
Musikaz jartzen dute,
aidean herria.
Diana, Zortziko,
Arin-arin, fandango,
Laukote hoberik
ez duzu izango.

Epelde eta Maspilli,
Txoko-txokolate.
Oleskari fiñenak,
Muñioso aparte.
Piraguas, Moketas,
Barbantoni, Izeta.
Bihotza daukate
musikaz beteta.

Txibizale-kantore
Agustin dotore.
Beti adarra jo nahian
Josepe azaria.
Bajutan Bentura,
Erramun, Aile-aile.
Meiku bat dutela
hotsen konpontzaile.





# Julianen urbanoa




Julianen urbanoa
ez duk autobus sanoa,
tirriki-tarraka doa,
keaz beterik kanpoa.
Haurrak ikastolara goaz.

Aldapa igo du,
beheraka orain,
Ru-ru-ru-ru-ru-ru-ru!





# Ziriketan

*Musika eta Bertsoak: Herrikoak*




Inazio Palazio
jan eta eran despazio,
ogia purra, purra,
Inazio lapurra.

Halako kalean,
izkina batean
hiru kakamokordo
erreal batean.
Erosi nahi duenak
eskaparatean.



Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
gaixorik dago,
buruko minez dago.
Medikoak burutik
txano bat jarri dio:
txano txikia,
txano gorria,
Tolosako feritik ekarria.

Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
gaixorik dago,
belarriko minez dago.
Medikoak belarritik
guata bat sartu dio,
guata goxoa,
guata txuria,
Tolosako feritik ekarria.

Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
gaixorik dago,
lepoko minez dago.
Medikoak lepotik
lepoko bat jarri dio,
lepoko zabala,
lepoko urdina,
Tolosako feritik ekarria.

Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
gaixorik dago
hankeko minez dago.
Medikoak hanketik
tirita jarri dio,
tirita luzea,
tirita arrosa,
Tolosako feritik ekarria.



# Biri Biri txakurra

Musika eta Bertsoak: M. Urbieta.




Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
gaixorik dago,
tripako minez dago.
Medikoak ahotik
pastilla bat sartu dio:
pastilla lodia,
pastilla horia,
Tolosako feritik ekarria.

Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
gaixorik dago,
bihotzeko minez dago.
Medikoak bihotzean
pila bat jarri dio
pila polita
pila berdea,
Tolosako feritik ekarria.

Gure txakurra,
Biri Biri txakurra,
Pozik bizi da,
sendatu egin zaigu.
Medikoak hezur bat
jateko eman dio,
hezur haundia,
hezur gozoa,
Tolosako feritik ekarria.






# Dinbi danba!




Dinbi-danba!
Dinbi-danba!
mailu batez
norbait hil da.
Norbait hil da
mailu batez.
Dinbi-danba!
Dinbi danba!





# Enbata




Montetxion dago Katxibatxi,
handik dabiltza Txorten eta Patxi.
Xiprinetik
Bibonera
zeharka goaz etxera.
Tunbai, tunbai, tunbai
tunbaitia enbata.
Tunbai, tunbai, tunbai
tunbaitia enbata.
Xiprinetik
Bibonera
zeharka goaz etxera.



Ene Zarautz maite
nere amets laguna,
kantuz datorkizu
hainbat maite zaituna.
Hain zera kutuna
garbi ta txukuna
gure alaitasuna!
Lore usaiduna,
indar daukazuna
parerik ez dezuna.

Zure zaindaritzat
daukazu Talaimendi.
Bestetik Pagoeta
otoizka Goi-Jaunari.
Barbara gain hori
Torre Eiffel dirudi,
bi pausora Getari.
Itsasoko begi
hor dezu Mollarri,
guztion zoragarri.



# Ene Zarautz maite




Kanpotar millakak
bisitatzen zaituzte
geroz ta gehiagok,
nik halaxe dut uste.
Etortzeko eske
ta joateko triste,
zu gustatzen hainbeste!
Zugana nahi dute,
aitortzen digute.
Hoberik ez bai dute.

Lur hontan ez da ez
indartuko arantza,
beste modukoa
da guk dugun baratza.
Zarauztar neskatxa,
maitetasun hutsa.
Balio du dirutza.
Eder du gorputza
aingeru hizkuntza.
Atoz, bada, Zarautza!






## Gora Euskara




Euskal haurrak bagoaz
bizitzan aurrera
euskara ikasiaz
guztiok batera.

Gora, gora gure EUSKARA!
Gora! Gora!

Euskal haurrak gara!




Txioka,
ziru ziruka,
Matxin arrantzalea itsasotik dator.
Eskalapoi dantza,
Baigorriko plazan. Riau, rau, rau!

Mizmizka,
Morron-morron maiau!
Mizmiz katu txikia sukaldetik dabil.
Eskalapoi dantza
Baigorriko plazan. Riau, rau, rau!

Ruruka,
itxumandoka,
Ruper karramarroa hondartzara doa.
Eskalapoi dantza
Baigorriko plazan. Riau, rau, rau!



# Txioka

Musika eta Bertsoak: M. URBIETA.




Kua-kua,kua!
Plisti-plisti-plast,
ahatetxo itsusia errekatik dabil.
Eskalapoi dantza
Baigorriko plazan. Riau, rau, rau!

Goizetan
kukurrukuku!
Lumagorri oilarra baserritik dator.
Eskalapoi dantza
Baigorriko plazan. Riau-rau-rau!

Saltoka
tranka trankatran
Ajuaju astoa baratzara doa,
Eskalapoi dantza
Baigorriko plazan. Riau, rau, rau!





# Gau argitan




Gau argitan,
trankatrankatran,
zelaitikan nenbilen trostan.
Kanta kanta
zerugoitikan
izarño bat nuen agurka.





# Karraxika

Musika eta Bertsoak: M. URBIETA.




Astoak ajaja!
zaldiak ijiji!
Arkumetxoak be-be!
Zakurrak uau-uau-uau!
Katuak, miau-miau-miau!
Ahatetxoak kua-kua!

Kuku jaunak ku-ku!
Behiak muuu-muuu!
oilarrak kukurrukuku!
kurrukurrukuku!

Txepetxak piripi!
Kirkerrak kri-kri-kri!
Ikastolan karraxi.






# Gurea duk hau

musika eta bertsoak, M. URBIETA.




Bat, bi, hiru, lau.
Gurea duk hau!

Zein ederra den mendian,
txorien abestia,
Udaberrian.

Ez negarrik egin arren,
iritxi zaigu eta
Udaberria.

Bai, itxaropenez bete
zaigu gure bihotza
Udaberrian.

Poz eta alaitasunez
zelai eta basoak
Udaberrian.

Bat, bi, hiru eta lau txori
mendietan kantari,
Udaberrian.




Maiteak erran zerautan
polit nintzanez,
polit polit nintzala
bainan larrua beltz
larrua beltz.

Ai, ai fandango
ez diñat emango.

Maiteak erran zerautan
primu nintzanez,
primu primu nintzala
bainan etxerik ez,
etxerik ez.

Ai, ai fandango
ez diñat emango.



# Ai, ai fandango!




Maiteak erran zerautan,
moltsa banuenez,
moltsa moltsa banuela
bainan dirurik ez,
dirurik ez.

Ai, ai fandango
ez diñat emango.

Maiteak erran zerautan
lanean nekienez,
lanean, lanean nekiela
bainan gogorik ez,
gogorik ez.

Ai, ai fandango
ez diñat emango.






# Trikitilariak




Trikitilariak goizeko seietan
Kalez kale doaz festetan.
Egun berri on bat
doinu alaietan,
panderoa ari da kaletan.
Ez egon pentsetan,
geroztik penetan,
atozte gurekin dantzetan.

*Liburuxka honen inprimaketa
Itxaropena, S.A., argitaldariaren
eskeintzaz egina izan da.*